



## KIDEGORA SARTZEKO AUKERATZE-PROZEDURA

2011-2012  
IKASTURTEA

- Maisu-maistrak
- Bigarren Hezkuntzako irakasleak
- HEOeko irakasleak
- Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleak
- Lanbide Heziketako irakasleak

IRAKASKUNTZA  
PRAKTIKAK  
BALORATZEKO  
TXOSTENA

## ZUZENDARIAREN TXOSTENA

PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAREN IZEN-DEITURAK

PRAKTIKETAKO ALDIA, HILABETEETAN

IKASTETXEA

ESPEZIALITATEA

HERRIA

LURRALDEA

## ADIERAZLEAK ETA MAILAK

(Markatu dagokiona, beheko laukietan.

Ohar pertsonalak egin daitezke horretarako dagoen tokian)

## 1.-IKASTETXEKO LAGUN BAKARREKO ORGANUEN PROPOSAMENEZ EGITEN DIREN HEZKUNTZA-JARDUEREN DISEINUAN ETA EGITEAN DUEN PARTE-HARTZEA

 ONDO NAHIKO GUTXI

**1.1.-** Bere kabuz etengabe jarduten du ikastetxeko zuzendaritzarekin lankidetzan, diseinatu eta gauzatzen diren hezkuntza-jarduerak arrakastatsuak izan daitezzen iradokizunak emanez. Halaber, lankidetzan maila bera du gainontzeko lagun bakarreko organoekin.

**1.2.-** Noizbehinka edota interes handirik gabe laguntzen du. Ez da lagun bakarreko organoek proposatutako jardueren kontra agertzen baina ez da gehiegi inplikatzan ere. Ekimen pertsonal urria erakusten du eta ez du entusiasmo handirik.

**1.3.-** Ez du lan-ordutegia behar bezala betetzen. Huts egiten du klasera edo egiaztatutako justifikaziorik gabe iristen da berandu. Ez du koordinazio didaktikorako eta ebaluazio-bileretan, klaustroetan, ikastetxean egin beharreko prestakuntza-saioetan, zaintzetan...parte hartzen edo sarritan alde egiten du.

OHARRAK

**2.- IKASTETXEAN EGON BEHARREKO ORDUTEGI PERTSONALA BETETZEA** ONDO

**2.1.-** Soberan betetzen du bere lan-ordutegia. Hutsegiteak aurreikusi eta behar bezala antolatzen ditu (lehenago abisatzen du, materiala prestatzen du zaintza-irakasleentzat...). Behar izanez gero, puntualki denbora gehiago dedikatzea eskatzen duten aparteko egoerei arreta emateko prest agertzen da (premiatzko gaiak, bisitak egin ahal izateko familien ordutegira egokitzea...).

 NAHIKO

**2.2.-** Zehatz-mehatz betetzen du lan-ordutegia eta normalean garaiz iristen da. Ez du sarritan huts egiten eta hutsegiteak behar bezala justifikatzen ditu.

 GUTXI

**2.3.-** Ez du lan-ordutegia behar bezala betetzen. Huts egiten du klasera edo egiaztatutako justifikaziorik gabe iristen da berandu. Ez du koordinazio didaktikorako eta ebaluazio-bileretan, klaustroetan, ikastetxean egin beharreko prestakuntza-saioretan, zaintzetan... parte hartzen edo sarritan alde egiten du.

**OHARRAK**


---

**3.- TALDE-GELAN EMAN BEHARREKO IRAKASGAIEI ORDUTEGIAK BETETZEA** ONDO

**3.1.-** Zehatz-mehatz betetzen du, curriculum-irakasgaietan eman beharreko orduerik begira, ikastetxearen araudi eta plangintzan zehaztutakoa. Aldez aurretik eta era sistematikoan programatzen du haren irakaskuntza-jarduera (helburuak, edukiak, jarduerak, sekuentziazioa, mailakatzea, ebaluazioa...) eta izan daitezkeen desorekak zuzentzen ditu, gertatzen diren heinean.

 NAHIKO

**3.2.-** Errespetatzen du, oro har, eman beharreko irakasgaien ordutegiari begira ikastetxearen araudian eta plangintza-agirietan agertzen dena. Batzuetan desorekak ditu programatutakoa emateko erabili beharreko denborari begira, baina desoreka horiek gehiago gertatzen dira ustekabeko egoerengatik, plangintza eta programazio faltarengatik baino.

 GUTXI

**3.3.-** Ez zaio, gelan eman beharreko irakasgaien orduerik begira, indarreko legeriak xedatzen duenari edo ikastetxearen hezkuntza-plangintzarako agiriek agertzen dutenari lotzen. Sarritan desorekak ditu programatutakoa emateko erabili beharreko denborari begira eta plangintza eta programazio faltarengatik gertatzen dira desoreka horiek

**OHARRAK**


---

**4.- DEPARTAMENTUAREN, ZIKLOAREN ETA TALDE-GELAKO IRAKASLE-TALDEEN AKORDIOAK BETETZEA, IKASLEEN EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIOARI DAGOZKIENAK BATEZ ERE** ONDO

**4.1.-** Behar bezala betetzen ditu departamentuaren, zikloaren edo talde-gelako irakasleen akordioak. Beti eta zehatz-mehatz jokatzen du ikasleak ebaluatu eta kalifikatzeko hartutako akordioaren arabera.

 NAHIKO

**4.2.-** Departamentuak, zikloak edo talde-gelako irakasle-taldeek hartutako akordioak betetzen ditu normalean, ikasleak ebaluatzeko erabakitako ebaluazio-irizpideen arabera beti jokatzen ez duen arren.

 GUTXI

**4.3.-** Ez du departamentuaren, zikloaren edo talde-gelako irakasleen inolako akordiorik kontuan hartzen. Haren irizpideen arabera jokatzen du ikasleak ebaluatu eta kalifikatzeko orduan eta ez ditu akordioetan ezarritakoak kontuan hartzen.

**OHARRAK**


---

**5.- KIDE ANITZEKO ORGANOEEN AKORDIOETAN PARTE HARTU ETA BETETZEA** ONDO NAHIKO GAIZKI

**5.1.-** Era aktiboan parte hartzen du dagozkion kide anitzeko organoen bileretan eta bilera horietan ekarpenak egiten ditu. Organo horien erabaki eta argibideak betetzen ditu.

**5.2.-** Dagozkion kide anitzeko organoen bileretara joaten da eta haien erabaki eta argibideak betetzen ditu.

**5.3.-** Badu partaide den kide anitzeko organoetatik alde egiteko edo berorietan parte ez hartzeko joera, batzuetan ez ditu haien akordioak betetzen eta sarritan eragozpenak jartzen dizkie.

**OHARRAK**


---

**6.- ZEIN MAILATAN DAGO INTEGRATUTA IRAKASLEEN KLAUSTROAN ETA ESKOLA-ELKARTEAN** ONDO NAHIKO GAIZKI

**6.1.-** Era aktiboan parte hartzen du klaustroan, ekarpenak eginez eta hobeto funtziona dezan laguntza emanez. Eskola-erkidegoko kide desberdinen arteko koordinazioan eta ongi moldatzean inplikatzan da.

**6.2.-** Irakasleen klaustroan parte hartzen du baina errutinaz eta entusiasmo handirik gabe. Behar bezalako begirunea agertzen die hezkuntza-erkidegoa osatzen duten gainontzeko kide eta estamentuei baina ez die garrantzirik ematen. Haren jarrera parte-hartzailea da baina ez du nabarmenki laguntzen.

**6.3.-** Ez da klaustroaren ohiko dinamikan behar bezala integratzen. Jarrera negatiboak ditu, klaustroaren funtzionamendu onari oztopoak jartzen dizkio edo axolagabekeria erakusten du. Ez du eskola-erkidegoa osatzen duten gainontzeko kide eta estamentuen funtzioa aitortzen, ezta haien eskuduntzak errespetatu ere.

**OHARRAK**


---

**7.- TALDEAN LAN EGITEKO GAITASUNA** ONDO NAHIKO GAIZKI

**7.1.-** Taldean lan egiteko gaitasun handia. Talde dinamiken aldeko jarrera du. Lankidetzarako behar diren gizarte-trebakuntzak erakusten ditu, baita sor daitezkeen gatazkak era baketsuan konpontzeko ere. Liderra izateko gaitasuna du.

**7.2.-** Ez da taldean lan egitearen kontra agertzen baina ez du gehiegi parte hartzen ere. Gehiago bilatzen ditu taldeak, prozedurak definitu eta erabakiak hartzeko, eskaintzen dituen babesa eta segurtasuna benetako laguntza ematea baino. Arazoak sortzen ez dituen arren, ez du funtsezko ekarpenik egiten.

**7.3.-** Ez du taldean lan egiteko eta koordinatzeko batere gaitasunik erakusten, edo oso gaitasun eskasa erakusten du. Taldearen jarduera, proposamen eta erabakiei uko egiten die. Oso indibidualista da eta horrek zailtasunak sortzen ditu koordinatu eta planifikatzeko orduan.

**OHARRAK**


---

**8.- IKASTETXEAREN ESKOLA-JARDUERETAN PARTE HARTZEA** ONDO NAHIKO GAIZKI

**8.1.-** Ikastetxearen ohiko lanaldian egindako jarduera gehienetan era aktiboan inplikatzear gain, borondatez parte hartzen du jarduera horiek diseinatu eta prestatzeko prozesuan. Hobetzeko proposamen eta iradokizunak egiten ditu. Inplikazio pertsonala du jardueretan eta dedikazio berezia erakusten du.

**8.2.-** Ikastetxearen ohiko lanaldian egindako eskola-jarduera askotan parte hartzen du. Prestutasun ona agertzen du.

**8.3.-** Uko egiten dio, haren ustez, klaseak gelan emateari lotuta ez dagoen orori.

**OHARRAK****9.- IKASLEEKIN EGITEN DIREN ESKOLAZ KANPOKO ETA HEZKUNTZA-JARDUERA OSAGARRIETAN, OOGN ONARTUAK ETA IKASTETXEAREN PLANEAN AGERTZEN DIRENAK, PARTE HARTZEA** ONDO NAHIKO GAIZKI

**9.1.-** OOGn onartu eta Ikastetxearen Planean agertzen diren eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri gehienetan era aktiboan inplikatzear gain, era aktiboan parte hartzen du jarduera horiek diseinatu eta prestatzeko prozesuan. Hobetzeko proposamen eta iradokizunak egiten ditu. Jarduera horietan inplikatzeko da eta dedikazio berezia erakusten du.

**9.2.-** Prestutasun onarekin parte hartzen du OOGn onartu eta Ikastetxearen Planean agertzen diren eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri askotan.

**9.3.-** Ez du OOGn onartu eta Ikastetxearen Planean agertzen diren jarduera osagarrietan edo eskolaz kanpoko jardueretan interesik erakusten. Oro har, ez du haietan parte hartzen edo eragozpen asko jartzen ditu.

**OHARRAK****10.- IKASLE ETA FAMILIEKIN HARREMANAK IZAN ETA KOMUNIKATZEKO GAITASUNA** ONDO NAHIKO GAIZKI

**10.1.-** Gizarte-trebetasun asko erakusten ditu pertsonen arteko harremanetan eta gatazkak konpontzeko orduan. Ikasle eta familiek konfiantza handia dute harengana eta harengana jotzen dute, baita gairik delikatuenetan ere. Ikasle eta familiek asko estimatzen dute alde akademikoan eta gizatiarrean erakusten duen gaitasun profesionala. Profesionaltasun handiz jokatzeko du ikasleei orientabidea emateko edo tutoretza egiteko orduan.

**10.2.-** Alderdi akademikoez eta ikasleen banakako garapenez arduratzen da. Ikasleei orientabidea emateko edo tutoretza egiteko eman zaizkion funtzioak betetzen ditu. Oro har, harreman onak eta komunikazio arina ditu ikasle eta familiekin.

**10.3.-** Ez die behar bezalako arretarik ematen ikasleei, eta ez ditu ikasleei orientabidea emateko edo tutoretza egiteko funtzioak behar bezala betetzen. Ez du familiekin harremanak izateko gogo handirik. Ez dio kasu bakoitzaren jarraipenari arreta handirik ematen. Gizarte-trebetasun gutxi erakusten du eta ez da gatazkak era baketsuan konpontzeko gauza.

**OHARRAK**

**11.- IRAKAS-PRAKTIKA TALDE-GELAN** ONDO NAHIKO GAIZKI

**11.1.-** Ezarritako programazioari lotzen zaio, hobekuntzak proposatzen ditu, klaseak, jarduerak, materialak... zehatz-mehatz prestatzen ditu. Talde-gelaren premia konkretuetara egokitzen da. Ikasteko giro ona sortzen du eta ikasleak motibatzen ditu. Oso ordenatu eta sistematikoa da. Era aktiboan parte hartzen du talde, kurtso eta ziklo mailako lan-taldeetan. Behar bezala koordinatzen da hezkuntza-laguntzako zerbitzuekin (Berritzeguneak).

**11.2.-** Programazio-agirietan ezarritakoari eta kide anitzeko eta koordinazio didaktikoko organo desberdinen erabakiei lotzen zaie. Talde-gelaren premia konkretuetara egokitzen daki. Diziiplina-arazoei behar bezala aurre egiten die.

**11.3.-** Desordenatua eta sistematizazio handirik gabekoa da haren irakaskuntza-lanean, sarritan inprobisatzen du, testuliburura mugatzen da, ez ditu ebaluazio-irizpide koherenteak ezartzen, ezta aplikatu ere, eta ez du ikasleen aniztasuna kontuan hartzen. Ez du diziiplina-arazoak behar bezala bideratzeko gaitasunik.

**OHARRAK****12.- LANKIDETZA IKASTETXEKO ZUZENDARITZA TALDEAREKIN BATERA, BERE HEZKUNTZA-ZEREGIN ETA EKINTZETAN AHALIK ETA ONGIEN JARDUN DEZAN** ONDO NAHIKO GAIZKI

**12.1.-** Bere ekimenez eskaintzen dio lankidetzaren zuzendaritza taldeari. Iradokizunak, baliabideak eta ordu-erabilgarritasuna dakartza berekin, ikastetxea ongi ibil dadin eta hezkuntza jarduerak gauzatu daitezzen.

**12.2.-** Lagundu egiten du zuzendaritza taldeak eskatzen dionean. Ongi burutzen ditu zuzendaritza taldeak programatutako jarduerak, baina ez du ekimenik agertzen, eta ez du hobekuntzako osagairik proposatzen.

**12.3.-** Ez du agertzen jarrera aktiborik ikastetxeko zuzendaritza taldearekin batera lankidetzan aritzeko. Ekintzaren bat proposatzen diotenean zereginen batean jardute aldera, ez du batere gogorik adierazten edo aitzakiak jartzen ditu ez giteko.

**OHARRAK**

**BALORAZIOAREN OINARRI DIREN ELEMENTU ETA DOKUMENTAZIOA**

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEAREN KURRIKULUM PROIEKTUA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEAREN URTEKO PLANA	<input type="checkbox"/>
ARLO, MAILA, ESPEZIALITA- TEKO PROGRAMAZIOAK	<input type="checkbox"/>
AJA	<input type="checkbox"/>
EED	<input type="checkbox"/>
TUTORETZA PLANA	<input type="checkbox"/>
KLAUSTROEN AKTAK	<input type="checkbox"/>
HUTSEGITEEN PARTEA ETA KONTROLA	<input type="checkbox"/>
KOORDINAZIO, IRAKASLE-TALDEA, MAILA, MINTEGIA EDOTA BESTELAKO BATZARRAK	<input type="checkbox"/>
EBALUAZIO SAIOEN AKTAK	<input type="checkbox"/>
IRAKASLEAREN EGUNEROKO JARDUEREN BEHAKETA	<input type="checkbox"/>
KLAUSTRO NAHIZ ORGANO KOLEGIATUETAN PARTE HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASTETXEKO NAHIZ KANPOKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE-HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASLEEN TUTORETZA EDOTA ORIENTABIDETZARAKO BILERETAN PARTE-HARTZEA	<input type="checkbox"/>
IKASLEEKIKO TUTORETXA SAIOAK	<input type="checkbox"/>
FAMILIEKIKO BILERAK	<input type="checkbox"/>
BESTE BATZUK (Zehaztu)	<input type="checkbox"/>

-(e)n,

-(e)ko

-ren

-(e)an

**Zuzendaria****Izpta.:**

(Sinadura eta zigilua)